

Pasio koktela



A ZER SAIO PASIONALA eskaini zigun OLBEk denboraldi honetako azken aurreko ekitaldian! Bi opera atsegin, publikoaren gustukoak, giza sentimendu unibertsalak azaltzen dituztenak gehigarri handirik gabe; apustu segurua zirudien, eta arrakastatsua suertatu zen esperimentua. Eta esperimentua deitzen diot, bi obrak, nahiz eta garai eta leku desberdinetan kokatuak izan, uztarturik aurkeztu zirelako, egokitzapen eszenikoari esker. *Cavalleria rusticana*aren akzioa Siziliako herri batean gertatzen da, eta *Pagliaccire*n istorioa, aldiz, Calabrian. Aldi honetan, bi opera kokatzen ziren Italiako hegoaldeko herri indefinitu batean, XX. mendeko berrogeiko hamarkadan (neo-errealismo italiarraren estetika begi bistan zegoen).

Bi istorioetan jelsia eta heriotza protagonistak dira, eta interpreteekin egindako joko baten bidez, *Pagliacci* *Cavalleria rusticana*aren jarraipena dela dirudi, edo, jarraipena baino gehiago, lehenengoaren ondorio morala erakusten du bigarrenak. Hau da: Gregory Kunde tenore handiak *Cavallerian* senar desleialaren rola egiten du, eta hurrengo operan, ordea, Kundek sufritzen du emaztearen infidelotasuna, Canio-ren pertsonaia eginez. Bi operetan mantentzen zen dekoratua, jarraipenaren ilusioa handiagotuz. Horrez gain, Pietro Mascagni eta Ruggero Leoncavallo-ren partitura potenteak primeran uztartzen dira, emaitza orokorra biribiltzeko.

Pisuzko interpreteak izan genituen saio honetan. *Cavalleriare*kin hasiko gara: Daniela Barcellona mezosopranoak, kualitate bokalak erakustez gain, injenuitate eta babesgabetasun punttuak eman zizkion bere pertsonaiari, Santuzza gaixo ahaztezina eginez; eta lehen aipatutako Gregory Kunde teno-

Cavalleria rusticana (Pietro Mascagni)
eta *Pagliacci* (Leoncavallo).

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria:
Alessandro Vitiello. Bilboko Operaren Abesbatza.

Zuzendaria: Boris Dujin. Kantika Korala.

Zuzendaria: Basilio Astúlez. Bakarlariak:
Caniela Barcellona (mezzoa), Gregory Kunde
(tenorea), Inva Mula (sopranoa), Luca Grassi
(baritonoa). Lekua: Euskalduna Jauregia.

Data: maiatzaren 1a.

rea eraginkortasunez aritu zen Turiddu-ren rolean, baina benetan distiratsu agertu zen *Pagliaccire*n Canio pertsonaian, askoz interpretazio sentituagoa egin baitzuen. Opera honekin jarraituz, azpimarratu beharko genuke Inva Mula sopranoaren interpretazioa, Nedda zoragarria egin baitzuen, pertsonaia honen alderdi kontrajarriak ondo irudikatuz: lotsagabea baina aldi berean gupidagarria, askatasunez bizi nahi izategatik heriotza aurkitu zuelako.

Bilboko Operaren Abesbatzak lan dezente izan zuen taldeko eszenak garrantzitsuak diren *Cavalleria rusticana*n. Oso ondo aritu ziren Boris Dujin-en zuzendaritzapean. Kantika Korala umeen abesbatza ere fin ibili ziren, Basilio Astúlezen batutapean. Nafarroako Orkestra Sinfonikoa, berriz, emozio gehiegirik gabe, pobre samar. Eta, musikatik aparte, lehen aipatu bezala, Gabriele Moreschi-ren eszenografia sinple eta errealistaren efektu artistikoa azpimarratuko genuke. ■

Montserrrat Auzmendi